



SEGURTASUN SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen
eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Régimen Jurídico, Servicios
y Procesos Electorales

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZEN ARTXIBOA ERABILTZEKO ESKULIBURUA (ARE)

Hauteskundeetako emaitzen artxiboa erabiltzeko eskuliburua

Edukia

1. Sarrera	2
Definizio garrantzitsuak.....	2
2. Ohiko galderak.....	2
Zer egin dezaket? Eta menuaren zein aukeratik?	2
Zein formatutan lor ditzaket datuak?	3
Xehetasun-maila ezberdina duten emaitzak lor ditzaket?	3
Nire analisiak egiteko datuak deskarga ditzaket?.....	3
Jarlekuak banatzeko simulazioak egin ditzaket?	3
Analisi konplexuak egin ditzaket?	3
3. Menua.....	4
3.1. Hauteskundeetako emaitzak	4
3.1.1. Geografia-eremua.....	5
3.1.2. Alderdiak.....	6
3.1.3. Grafikoak, esportazioak eta simulazioa	7
3.2. Hautetsiak	10
3.3. Konparazio-azterketa	10
3.3.1. Grafikoak eta esportazioak	12
3.3.2. Konparazio-azterketetarako bateraketak.....	12
3.4. Desberdintasunak	14
3.4.1. Grafikoak eta esportazioak	16
3.4.2. Alderdien bateraketaren analisia.....	16
3.5. Alderdiak	16
3.6. Alderdien partehartzea	17
3.7. D'Hondt araua	17
3.8. Bateraketak	19
3.8.1. Alderdien bateraketak	19
3.8.2. Bateraketa geografikoak	20
3.9. Egindako hauteskundeak.....	23
3.10. Mapak	23

1. Sarrera

Esuliburu honen helburua da Hauteskunde Emaizten Artxiboko web-zerbitzua, aurrerantzean ARE, erabiltzen laguntzea. AREk Euskadi mailan emaitzak izan dituzten hauteskundeei eta erreferendumei buruzko informazioa ematen du, xehetasun maila ezberdinekin. Ez ditu jasotzen udalerria baino eremu txikiagoko lurralde-erakundeei dagozkien hauteskundeak.

Definizio garrantzitsuak

JARLEKUA.- Parlamentuaren ganberetako batean politikari batek betetzen duen eserlekua.

HAUTESBARRUTIA.- Jarlekuak banatzeko irizpidetzat hartzen den lurralde-azpi banaketa. Hauteskunde-motaren arabera, azpi banaketa hori desberdina da (hala nola; estatua, lurralde historikoa edo probintzia, eskualdea eta udalerria).

ATZERRIAN IRAUNKORKI BIZI DIREN EGOILARREN ERROLDA (CERA).- Hautesle horiek dagokien udalerriko erroldan inskribatuta daude, eta lurralde historiko edo probintzia bakoitzerako zenbatzen dira. Ezin dute hauteskunde guztietan bozkatu, bakarrik Eusko Legebiltzar, Kongresu, Senatu eta Europar hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea daukate.

D'HONDT ARAUA.- D'Hondt araua indarrean dagoen hauteskunde legediak jarlekuak banatzeko erabiltzen duen sistema da. Metodo proportzionala da, zatiduraz kalkulatua. Hauteskunde-legediak, hauteskunde-motaren arabera, gutxieneko ehunekoa ezartzen du jarlekuen banaketan parte hartu ahal izateko. Ehuneko hori hautesbarruti bakoitzean lortutako baliozko botoen arabera kalkulatzen da. Ehunekoak har ditzakeen balioak: %3koa da Eusko Legebiltzarrerako, Kongresurako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan; % 5koa, berri, Udal hauteskundeetan.

2. Ohiko galderak

Zer egin dezaket? Eta menuaren zein aukeratik?

- Ikusi boto eta jarlekuen emaitzak: [HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK](#).
- Ikusi hautetsiak: [HAUTETSIK](#).
- Alderatu hauteskundeetako emaitzak: [KONPARAZIO-AZTERKETA](#).
- Ikusi alderdi politikoek lortutako emaitzen hazkundera edo jaitsiera, bi hauteskunde aukeratuta: [DESBERDINTASUNAK](#).
- Zerrendatu hauteskunde zehatz batean aurkeztu diren alderdi politikoak: [ALDERDIK](#).
- Zerrendatu alderdi politiko bat aurkeztu den hauteskunde guztiak: [ALDERDIEN PARTEHARTZEA](#).
- Egin jarlekuen banaketaren simulazioak: [D'HONDT ARAUA](#).
- Ikusi bateraketen bidez sortutako alderdi politiko edo eremu geografiko fiktizioei dagozkion emaitzak: [BATERAKETAK](#).
- Ikusi hauteskunde prozesu baten data esanguratsuak: [EGINDAKO HAUTESKUNDEAK](#).
- Ikusi emaitzak mapetan: [MAPAK](#).

Zein formatutan lor ditzaket datuak?

- Web.
- Acrobat PDF fitxategia.
- Microsoft Excel kalkulu-orria.
- CSV testu-fitxategia.

Xehetasun-maila ezberdina duten emaitzak lor ditzaket?

Bai, erregistratutako hauteskunde guztietarako honako xehetasun-maila hauek daude:

- EUSKADI
- LURRALDE HISTORIKOA
- ESKUALDEA/KUADRILLA (Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako hautesbarrutia da).
- UDALERRIA (Udal-hauteskundeetarako hautesbarrutia da).
- ERROLDA-BARRUTIA.
- AUZOA (Gaur egun, hiru hiriburuetarako baino ez dago eskuragarri).
- ATALA.
- MAHAIA.

Nire analisiak egiteko datuak deskarga ditzaket?

Bai, Excel eta CSV fitxategietan.

Jarlekuak banatzeko simulazioak egin ditzaket?

Bai, jarlekuen banaketa egiteko [D'Hondt araua](#) erabiltzen da, indarrean dagoen hauteskunde-legediak ezarritakoaren arabera.

Analisi konplexuak egin ditzaket?

Bai. Aplikazioa erabilita hainbat **analisi konplexu** egin daitezke, hala nola; alderdi politikoen taldeak sortu (**alderdien bateraketak**) eta ondoren, alderdi horien emaitzak batuta aurkeztu. Ereku geografikoen multzoak ere egin daitezke (**bateraketa geografikoak**), eremu horietarako datuak batuta aurkezteko. Horrela, aurreko ezaugarriak konbinatzen baditugu galdera konplexuak erantzun ditzakegu, adibidez:

Zein izan da Bilboko itsasadarren ezker aldean versus eskuinaldean alderdi politiko nazionalisten bilakaera nazionalistak ez direnen aurrean?

Talde batean defini ditzakegu nazionalistatzat jotzen ditugun alderdi politikoak, eta beste talde batean nazionalistatzat jotzen ez ditugunak. Bestalde, ezker aldeko udalerriak bateraketa geografiko batean bil ditzakegu, eta eskuinaldekoak beste batean.

Hori egin ondoren, *Konparazio-azterketa* aukera erabili dezakegu. Era horretan, aplikazioak aurretik definitutako bateraketak erabili ditzake taulen eta grafikoen bidez galderak erantzuteko.

3. Menua



ikonoan sakatu (orrialdearen ezkerreko goi partean) menuaren aukera batetik bestera pasatzeko.



Hemen zaude: / Hasiera

Ongi etorri Hauteskundeetako emaitzen artxiboaren orrira

Hemen Euskadin 1977tik aurrera egindako hauteskunde-prozesu guztietako emaitzak aurkituko dituzu, mahaian mailatik hasita eta hortik gora, baita horiek erabiltzeko beste aukera batzuk ere.

-  Hauteskundeetako emaitzak
-  Hautetsiak
-  Konparazio-azterketa
-  Desberdintasunak
-  Alderdiak
-  Alderdien partehartzea
-  D'Hondt araua
-  Bateraketak
-  Egindako hauteskundeak
-  Mapak
-  Laguntza



3.1. Hauteskundeetako emaitzak

Ezinbesteko bi eremu bete behar dira bilaketa bat egiteko:

- Hauteskundea: Datuak atera behar diren hauteskundearen artean aukeratzeko.
- Xehetasun maila: Datuak eskuratzeko zein eremu geografiko hautatuko dugun zehazteko (lurralde historikoa, eskualdea, udalerria...).

Bilaketa

Hautatu zein hauteskunde kontsultatu nahi duzun

Hauteskundea:

Xehetasun maila:

Geografia-eremua Alderdiak

3.1.1. Geografia-eremua

Behin *Xehetasun maila* zehaztuta, kontsultatu nahi diren eremu geografiko zehatzak *Geografia-eremua* izeneko aplikazio-fitxan aukeratu daitezke.

Hautapen-eremu bakoitzean aplikazioak eskaintzen dituen aukeren artean hautatu daiteke edo eta hutsik utzi (hiru puntuak ...). Azkenengo kasu horretan, aukeratutako xehetasun mailarako eremu geografiko guztiak agertuko dira (ikus adibidea).

Geografia-eremuetako hautapen-eremuak aktibatuta edo desaktibatuta agertuko dira *Xehetasun mailaren* arabera. Adibidez, ezinbestekoa da *Xehetasun mailan Mahaia* aukeratzea, *Mahaia* hautapen-eremuan mahai zehatz bat hautatu ahal izateko.

Hautatu zein hauteskunde kontsultatu nahi duzun

Hauteskundera: DIPUTATUEN KONGRESUA 2023 (GC) ▼

Xehetasun maila: Udalerria ▼

[Bilaketa egin](#)

Geografia-eremua | Alderdiak

LH: ... ▼

Udalerria: ... ▼

Atala: ... ▼

Eskualdea: ... ▼

Errolda-Barrutia: ... ▼

Mahaia: ... ▼

LH bateraketa: ... ▼

Udalen bateraketa: ... ▼

Eskualdeen bateraketa: ... ▼

Mahaien bateraketa: ... ▼

✉ DIPUTATUEN KONGRESUA 2023 (GC23) (UDALERRIA)

ABADIÑO

Emaitzak | Tarta | Barrak

◀ < ABADIÑO > ▶

[Simulatu](#) [CSV](#) [XLS](#) [PDF](#)

Adibidea: *Geografia-eremua* fitxan eremu guztiak mugatu gabe utzi (hau da, hiru puntuak uzten ditugu). *Xehetasun mailan Udalerria* aukeratu eta bilaketa egin. Horrela, Euskadiko udalerri guztietako emaitzak lortzen ditugu. Pantailan udalerri bakarra bistaratzen da (Abadiño, adibidearen arabera) eta gainontzeko udalerrien emaitzak ikusteko bi bide ditugu:

- Udalerriaren izenaren ezker-eskuinean agertzen diren hautatzaileen bidez. Kontuan hartu Udalerriak alfabetikoki ordenatuta agertzen direla.

-  Lehen erregistrora joateko hautatzailea
-  Azken erregistrora joateko hautatzailea
-  Aurreko erregistrora joateko hautatzailea
-  Hurrengo erregistrora joateko hautatzailea
-  Udalerriaren izenaren ondoan agertzen den geziaren bidez. Gezian sakatuta, alfabetikoki ordenatutako udalerrien zerrenda zabaltzen da.

Adibide honetan adierazitakoa aplikagarria da baita gainerako xehetasun mailetan ere, baina, kontuan hartu zenbakidun aukerek (*Barrutia*, *Atala* eta *Mahaia*) goranzko hurrenkera jarraituko dutela eta ez hurrenkera alfabetikoa. Behin *Geografia-eremua* zehaztuta, sakatu

 Bilaketa egin

botoian emaitzak lortzeko.

3.1.2. Alderdiak

Xehetasun maila zehaztu dugunean, *Alderdiak* fitxara joko dugu nahi ditugun alderdi politiko zehatzak aukeratzeko. Hautatu ez ditugun alderdiak, *Beste batzuk* bezala agertuko zaizkigu.

 Geografia-eremua
 Alderdiak

Iragazkia: Guztiak
Gainerakoa ezkutatu: ☐

☒	EAJ-PNV - EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO
☒	EB-AZ - ESCAÑOS EN BLANCO PARA DEJAR ESCAÑOS VACÍOS-AULKI ZURIAK ESERLEKUAK HUTSIK UZTEKO
☒	EH BILDU - EUSKAL HERRIA BILDU
☒	IZAN - IZAN

Besterik adierazi ezean, analisirako aukeratutako hauteskundera aldarrikatutako alderdi politikoak agertuko dira. *Iragazkia* erabil dezakegu nahi ditugun formazio politikoak errazago hautatzeko:

- Guztiak.- Alderdi politiko, koalizio, federazio eta hautesle-elkarte guztiak hautatzen ditu.
- Bat ere ez.- Item guztiei hautaketa-marka kentzen die.
- Alderdia.- Alderdi politiko gisa identifikatutakoak baino ez ditu aurkezten.
- Elkarteak.- Hautesle-elkarte izaera duten hautagaitzak aurkezten ditu (adibidez, udal-hauteskundeetako alderdi independenteak).
- Besterik.- Koalizioei, federazioei eta batasunei dagozkien formazio politikoak aurkeztu ditu.
- BAI/EZ.- Azterketan erreferenduma hautatu denean agertzen den aukera da.

Bestalde, formazio politikoaren bateraketak sortu baditugu, zerrendaren hasieran agertuko dira.

Gainerakoa ezkutatu aukerak ezabatu egiten ditu iragazkian adierazitakoari erantzuten ez dioten formazio politikoak, era horretan hautatu ditugun formazioen berrikuspena errazago egingo dugu.

Geografia-eremua eta *Alderdiak* fitxen aukeren bidez bilaketa mugatu ondoren, sakatu

 Bilaketa egin

botoian eta iragazkietan adierazitakoari erantzuten dieten emaitzak agertuko dira. Kontuan izan *Alderdiak* fitxan aukeratu ez diren formazioen emaitzak **BESTE BATZUK** lerroan eta emaitzak batuta agertuko direla. Adibidez, iragazkian *Alderdia* hautatu bada, bilaketa egitean alderdi bakoitzari erantzuten dioten emaitzak banakatuta agertuko dira. Era berean, eremu geografiko zehatzari dagokion hautesle-elkartean, koalizioen eta federazioen emaitzak Beste batzuk emaitza-lerroan batuta aurkituko ditugu.

Besterik adierazi ezean, analisirako aukeratu den hauteskudearen formazio politikoak agertuko dira eta, hala badagokio, erabiltzaileak egindako bateraketa politikoak. Azken horiek lehen lerroetan agertuko dira.

3.1.3. Grafikoak, esportazioak eta simulazioa

Bilaketa baten emaitzak grafikoki ikus daitezke (tarta eta barrak), hainbat formatutan esportatu daitezke (CSV, XLS eta PDF) eta simulazioak egiteko ere erabil daitezke.

Prozedura *Xehetasun maila* eta *Geografia-eremua* aukeratzean datza. *Geografia-eremuan* interesatzen zaizkigun hautapen-eremuak ez badira aktibatzen, *Xehetasun maila* aldatu beharko dugu eta zerrendan beherago dagoen mailaren bat hartu. *Errolda-Barrutia*, *Atala edo Mahaia* hautapen-eremuak aktibatu ahal izateko, lehenik udalerri zehatz bat aukeratu beharko dugu.

Behin bilaketaren datuak pantailan agertzen direnean, hauek ordenatu daitezke zutabeen etiketetan sakatuta (Logo-ari dagokiona izan ezik), beraz, zutabe ezberdinetako goiburuan sakatzen dugun bakoitzean ordena aldatzen da.

EUSKO LEGEBILTZARRA 2024 (PV24) (EUSKADI)

Emitzak

Tarta

Barrak

Simulatu

CSV

XLS

PDF

Errolda:

1.795.213

Baliogabeak:

7.859 (0,73%)

Zuriak:

10.523 (0,98%)

Hautagai-zerrenden aldeko botoak:

1.059.074

Boto-emaleak:

1.077.456 (60,02%)

Abstentzioa:

717.757 (39,98%)

Jarlekuak:

75


Boto baliodunak:

1.069.597

Logoa	Siglak	Botoak Kandidatura	Botoak % Kandidatura	Botoak % baliodunen	Jarlekuak
	EAJ-PNV	372.456	35,17 %	34,82 %	27
	EH BILDU	343.609	32,44 %	32,13 %	27
	PSE-EE/PSOE	150.752	14,23 %	14,09 %	12
	PP	98.144	9,27 %	9,18 %	7
	SUMAR	35.402	3,34 %	3,31 %	1
	PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE	23.888	2,26 %	2,23 %	0
	VOX	21.696	2,05 %	2,03 %	1


1. adibidea: Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetako emaitzak lortu nahi ditut lurralde historikoen arabera. Gero emaitza horiek grafikoki ikusi nahi ditut eta baita formatu ezberdinetara esportatu ere.

1. menutik *Hauteskundeetako emaitzak* hautatuko dugu.
2. *Hauteskunde* eremuan, Eusko Legebiltzarra 2024 (PV24) aukeratuko dugu.
3. *Xehetasun maila* atalean, *Lurralde historikoa* hautatuko dugu.
4. *Geografia-eremua* fitxaren, *LH* hautapen-eremuan, hiru puntuak utziko ditugu (...) Euskadiko lurralde historiko guztietako emaitzak lortu nahi baititugu.
5. *Bilaketa egin* botoia sakatuko dugu.
6. Emitzen gainean eta lurralde historikoaren ezker-eskuinean, hautatzaileak agertuko dira lurralde historiko batetik bestera igaro ahal izateko.
7. Bilaketaren emaitzak grafikoki (tarta, barrak) ikusi ahal izango ditugu eta baita formatu desberdinetara esportatu ere (CVS, XLS, edo eta PDF).



Jarlekuen banaketaren simulazioari dagokionez, aurreko bilaketa kontuan izanik, *Simulatu* botoia sakatuko dugu. Hautatutako hauteskundearen datuak formulario antzeko batean

agertuko dira eta bertan aldaketak egin ahal izango ditugu (ohikoena da gainditu beharreko % eta jarlekuen kopurua aldatzea). Datu berri horiekin aplikazioak jarlekuen banaketa berria egingo du D'Hondt ereduak aplikatuta (hauteskunde legediak horrela ezartzen baitu).



2. adibidea: 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Euskadi hautesbarruti bakarra izateak jarlekuen banaketan izango zukeen eragina simulatu nahi dut.

1. *Hauteskundera* eremuan Eusko Legebiltzarra 2024 (PV24) aukeratzen dugu.
2. *Xehetasun maila* atalean, *Euskadi* hautatzen dugu.
3. *Bilaketa egin* sakatzen dugu.
4. Datuak agertzen direnean, *Simulatu* sakatzen dugu.
5. Programak eskaintzen digu bilaketaren emaitzen datuekin betetako formularioa.
6. Simulazioari titulua ematen diogu.
7. *Gainditu beharreko %* atalean 3 idazten dugu (hautesbarruti bakoitzean gainditu behar den boto baliodunen kopurua da jarlekuen banaketan parte hartzeko eta hauteskunde motaren arabera aldatzen da).
8. *Simulazioa egin* sakatzen dugu. Programak adierazten digu simulatutako egoeran emango litzatekeen banaketa. Honako adibidean, EAJ-PNV, EH-BILDU, PSE-EE/PSOE, SUMAR eta VOXen jarleku kopurua aldatuko litzateke boto baliodunen %3a Euskadi osorako aplikatzen baita eta ez lurralde historiko bakoitzeko.

3. adibidea: Aztertu nahi dut 2023ko Kongresurako hauteskundeetako emaitzetan zein eragin edukiko lukeen jarlekuen banaketan baldin eta Bizkaian boto baliodunen %11 gainditu beharko balitz.

1. *Hauteskundera* eremuan Diputatuen kongresua 2023 (GC23) hautatzen dugu.
2. *Xehetasun maila* atalean *Lurralde Historikoa* aukeratzen dugu.
3. *Bilaketa egin* botoia sakatzen dugu.
4. Pantailan datuak agertzen direnean, goiko eskuin aldeko hautatzailea erabilia Bizkaiko datuetara joaten gara.
5. *Simulatu* botoia sakatzen dugu.
6. Programak datuen emaitzen formularioa aurkezten digu.
7. Simulazioari izenburua jartzen diogu.
8. *Gainditu beharreko %* atalean , 11 idazten dugu.
9. *Simulazioa egin* sakatzen dugu. Programak adierazten digu simulatutako egoeran emango litzatekeen banaketa. Honako adibidean SUMAREk jarlekurik ez luke izango eta EAJ-PNVk bat gehiago izango luke.

3.2. Hautetsiak

Erabiltzaileak aukeratutako hauteskunde eta geografia-eremu zehatz batetarako hautetsien zerrenda aurkezteko balio du ([Geografia-eremua](#) eta [Alderdiak](#) prozedurak ikusi).

Emaitzen taula edozein datu-zutaberen arabera alfabetikoki ordenatu daiteke goiburuko etiketaren gainean sakatuta, *Logo* zutabearen arabera izan ezik. Etiketa behin eta berriz sakatu behar da ordena alderantzizatzeko.

Kontsultaren emaitzak CSV, XLS eta PDF formatuan esportatu ditzakegu aukera bakoitzari dagokion botoia sakatuta.




Logoa	Alderdia	Abizenak, izena	Hautesbarrutia
	I.N.D.A.Z.	ABENOJAR BUENO, JOSEBA	ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA
	EH BILDU	ALLENDE GONZALEZ, BORJA	ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA
	EAJ-PNV	DE LA CRUZ ORTUZAR, ARGÍÑE	ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA

3.3. Konparazio-azterketa

Hainbat hauteskunderen arteko boto eta/edo jarlekuen bilakaera edo konparaketak aztertzeke balio du ([Geografia-eremua](#) eta [Alderdiak](#) prozedurak ikusi).

Konparazio-azterketa egiteko ezinbestekoa da konparatuko diren hauteskundeak (gutxienez bi) adieraztea. Horretarako *Sakatu Hauteskundeak hautatzeko* botoia erabiltzen da.



Konparazio-azterketa egiteko hauteskundeak hautatu

- ☐ EUROPAKO PARLAMENTUA 2024 (EU24)
- ☐ EUSKO LEGEBILTZARRA 2024 (PV24)
- ☐ DIPUTATUEN KONGRESUA 2023 (GC23)
- ☐ UDAL HAUTESKUNDEAK 2023 (MU23)
- ☐ BATZAR NAGUSIAK 2023 (JG23)
- ☐ EUSKO LEGEBILTZARRA 2020 UZT 12 (PV20)
- ☐ DIPUTATUEN KONGRESUA 2019 A10 (GC19-2)

Hautatu Buz

Ondoren lortu nahi ditugun datuen *Xehetasun maila* eta *Geografia-eremua* aukeratuko ditugu. *Geografia-eremua* atalean ez badira aktibatzen interesatzen zaizkigun hautapen-eremuak, , *Xehetasun maila* aldatu beharko dugu eta zerrendan beherago dagoen mailaren bat hartu. Hala nola, udalerrri jakin bat aukeratu beharra dago *Barrutia*, *Atala* eta *Mahaia* hautapen-eremuak aktibatzeke.

Ez da beharrezkoa hautatutako hauteskundeak mota berekoak izatea.

Bilaketa

Sakatu hauteskundeak hautatzeko

EU24, PV24, GC23

Xehetasun maila:

Errolda-Barrutia

Bilaketa egin

Geografia-eremua

Alderdiak

LH: ARABA/ÁLAVA

Eskualdea: ...

Udalerria: ELCIEGO

Errolda-Barrutia: ...

Atala: ...

Mahaia: ...

LH bateraketa: ...

Eskualdeen bateraketa: ...

Udalen bateraketa: ...

Mahaaien bateraketa: ...

Datuen taula edozein datu-zutaberen arabera ordenatu daiteke goiburuko etiketaren gainean sakatuta, Logoa zutabean izan ezik. Etiketari sakatu behar da behin eta berriz ordena alderantzizatzeko.

Adibidea: Eusko Legebiltzarrerako egin diren hauteskunde guztietarako Euskadiko botoen konparaketa lortu nahi dut.

1. *Sakatu Hauteskundeak hautatzeko* botoian eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde guztiak aukeratu.
2. *Euskadi* hautatu *Xehetasun maila* eremuan.
3. *Bilaketa egin* sakatu.

Bilaketa

PV24, PV20, PV16, PV12, PV09, PV05, PV01, PV98, PV94, PV90, PV86, PV84, PV80(EUSKADI)

Emailtzak

Lerroak

Barrak

☒ B Kandidatura
 ☐ B% Kandidatura
 ☐ B% baliodunen
 ☐ Jarlekuak

CSV

XLS

PDF

Logoa	Siglak	PV80	PV84	PV86	PV90	PV94	PV98	PV01	PV05	PV09	PV12	PV16	PV20
	EAJ-PNV	349.102	451.178	271.208	289.701	304.346	350.322			399.600	384.766	398.168	349.96
	EH BILDU										277.923	225.172	249.58
	PSE-EE/PSOE					174.682	220.052	253.195	274.546	318.112	212.809	126.420	122.24
	PP				83.719	146.960	251.743	326.933	210.614	146.148	130.584	107.771	
	SUMAR												
	PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE												

3.3.1. Grafikoak eta esportazioak

Grafikoak PNG formatuan esportatu daitezke. Behin bilaketa bateko emaitzak pantailan ditugunean, lerroak edo barrak fitxetan sakatuko dugu. Lerroen grafikoan hauteskunde bakoitzari dagozkion datuak agertzea nahi izanez gero, sakatu *Xehetasunak* botoia. Ondoren, sakatu *Deskarga* botoia.

Aurreko konparatiben emaitzak CSV, XLS eta PDF formatuan esportatu ditzakegu.

3.3.2. Konparazio-azterketetarako bateraketak


Gerta daiteke alderdi batek hauteskunde batetik bestera siglak aldatzea, koalizio bateko kide izatera pasatzea, etab. Besterik adierazi ezean, aplikazioak ez ditu aldaketa horiek kontuan izango eta alderdi ezberdinak balira aurkeztuko ditu, hau da, bilaketa egitean alderdi bakoitzaren emaitzak banakatuta aurkeztuko dira. Hala ere, analisia egiten ari denari interesatu ahal zaio hainbat formazio politikoen emaitzak lerro berean baturik agertzea, batez ere haren bilakaera formatu grafikoan ikusi nahi badu. Egoera horri erantzuteko, konparazio-azterketa egin aurretik erabiltzaileak bateraketak sor ditzake eta etiketa beraren azpian hainbat alderdi politikoren emaitzak batuta agertuko dira.

Adibidea: EAJ-PNVk eta EAK Euskadiko eremu geografikoan eta Eusko Legebiltzarrerako egin diren hauteskunde guztietan izan duten jarleku kopuruaren bilakaera jakin nahi dut. Ondoren, emaitza horiek lerro-grafiko batean ikusi nahi ditut.

Kasu honetan, prozedurak bi fase izango ditu:

- A. EAJ-PNVk eta EAK osatutako **alderdien bateraketa prestatzea**. Horretarako, etiketa beraren azpian, EAJ-PNV-EA deituko duguna, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara sigla horietako batekin aurkeztun diren alderdiak batuko ditugu.

1.  menutik *Bateraketak* funtzioa hautatuko dugu.
2. *Alderdiak* fitxa sakatuko dugu.



3. *Berria* botoia sakatuko dugu gure bateraketa sortzeko, eta hurrengo pantaila irekiko da.



Alderdien bateraketa

x

Izenburua:

Alderdien zerrenda: ☒ Guztiak ☐ Hauteskundearen arabera iragaziHautagai-zerrenda ☐ Bai ☒ Ez
independentek ikusi:

Erabilgarri:

A - ASAMBLEA DE ANDALUCIA
 A.E.T. - AGRUPACION ELECTORAL DE TRABAJADORE
 A.I.L.L. - AGRUPACION INDEPENDIENTE LLODIANA
 A.I.T.E. - AGRUPACION INDEPENDIENTE DE TIERRAS
 AA - ANDECHA ASTUR
 ABOTSANITZ - ABOTSANITZ
 ACNV-BAR-PRAO-... - PROYECTO EUROPA (ANV-BAR)



Hautatutakoak:

Iba Gorde

4. Formularioan EAJ-PNV-EA izenburua jarriko dugu.
5. *Hauteskundearen arabera iragazi* hautatuko dugu, eta hauteskunde guztien zerrenda irekiko zaigu. Zerrendatik Eusko Jaurlaritzako hauteskundeak aukeratzen ditugu. Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde bakoitza hautatzean, *Erabilgarri* taulan prozesu zehatz horretan aldarrikatutako hautagaitzak agertuko zaizkigu.
6. Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde bakoitzeko, EAri eta EAJ-PNVri dagozkien siglak hautatuko ditugu, *Eskuragarri* etiketaren azpian agertzen direnak, eta eskuinean jarriko ditugu,  tekla sakatzuz.
 Adibidez: hauteskundearen zerrenda, zaharrenetik berrienera berrikustea erabaki badugu, lehenik eta behin, 1980ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak hartuko ditugu. Bateraketan sartu nahi ditugun alderdi politikoetatik EAJ-PNV bakarrik agertzen dela ikusten dugu. Hautatu eta eskuinera eramango dugu. Alderdi politiko hori bateraketaren parte da jada, eta ez zaigu berririo agertuko Eusko Legebiltzarrerako gainerako hauteskundeak hautatzen ditugunean. Azterketa kronologikoarekin jarraituz, ikusiko dugu 1986an EA agertzen dela, eta alderdi hori eskuinera pasatzen dugu. 2001ean EAJ-PNV/EA koalizioa agertzen da eta bateraketan sartuko dugu. Ondorengo Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, EAK parte hartu duen gainerako koalizioak diskriminatzen baditugu, bateraketari gehitu beharreko alderdi gehiago ez direla agertzen egiaztatuko dugu.
7. Gorde sakatzen dugu.

B. Konparazio-azterketa egin aurreko bateraketa erabilita.

1.  menutik *Konparazio-azterketa* hautatuko dugu.
2. *Sakatu hauteskundeak hautatzeko* botoia sakatu eta orain arte Eusko Legebiltzarrerako egin diren hauteskunde guztiak hautatuko ditugu.
3. *Euskadi* aukeratuko dugu *Xehetasun maila* eremuan.
4. *Alderdiak* fitxaren gainean sakatuko dugu.
5. *Denei marka jarri/kendu* eremuari hautapen-marka kenduko diogu.
6. *Bateraketa: EAJ-PNV-EA* aukeratuko dugu.

7. *Bilaketa egin* botoia sakatuko dugu.
8. Taularen goiburuan *Jarlekuak* markatuko dugu.
9. *Lerroak* fitxaren gainean sakatuko dugu grafikoa lortzeko.

Bilaketa

Sakatu hauteskundeak hautatzeko PV24, PV20, PV16, PV12, PV09, PV05, PV01, PV98, PV94, PV90, PV86, PV84, PV80

Xehetasun maila: Euskadi

Geografia-eremua **Alderdiak**

☐ Denei marka jarri / kendu

☒ Bataketa: EAJ-PNV-EA

☐ AP - ALIANZA POPULAR

☐ AP-PDP-UL - COALICION POPULAR (AP-PDP-UL)

☐ AP-PL - COALICION POPULAR (AP-PL)

☐ AR - ALIANZA POR LA REPUBLICA

☐ ARALAR - ARALAR

Bilaketa egin

✉ PV24, PV20, PV16, PV12, PV09, PV05, PV01, PV98, PV94, PV90, PV86, PV84, PV80(EUSKADI)

Emaitzak **Lerroak** **Barrak**

☐ B Kandidatura ☐ B% Kandidatura ☐ B% baliodunen ☒ Jarlekuak

CSV **XLS** **PDF**

Logoa	Siglak	PV80	PV84	PV86	PV90	PV94	PV98	PV01	PV05	PV09	PV12	PV16	PV20	PV24
OTROS		35	43	45	44	45	48	42	46	44	48	47	44	48
EAJ-PNV-EA		25	32	30	31	30	27	33	29	31	27	28	31	27

3.4. Desberdintasunak

Bi hauteskunde alderatzen dira alderdi bakoitzak boto eta jarleku kopuruetan izan duen gorakada edo jaitsiera aztertzeko ([Geografia-eremua](#) eta [Alderdiak](#) hautatzeko prozedura ikusi). Bilaketaren emaitzak honako datu hauek eskainiko dizkigu; a) hauteskunde bakoitzean alderdiek izandako botoak (zenbakitan eta ehunekotan) eta jarlekuak; eta, b) bi hauteskundearen kopuruen artean kalkulaturako aldea (hauteskunde zaharrenaren kopurua ken berrienarena).

[Konparazio-azterketa](#) atalean azaldutako prozedura jarraitu behar da, baina ezin ditugu bi hauteskunde baino gehiago aukeratu, beraz:

1. Lehenik konparatu beharreko bi hauteskundeak hautatu *Sakatu hauteskundeak hautatzeko* botoiaren bidez.

2. Ondoren, lortu nahi ditugun emaitzen arabera *Xehetasun maila* eta *Geografia-eremua* hautatuko ditugu. Geografia-eremua atalean ez badira aktibatzen interesatzen zaizkigun hautapen-eremuak, *Xehetasun maila* aldatu beharko dugu eta zerrendan beheago dagoen mailaren bat hartu. Hala nola, udalerri jakin bat aukeratu beharra dago *Barrutia*, *Atala* eta *Mahaia* hautapen-eremuak aktibatzeko.

Datuen taula edozein datu-zutaberen arabera ordenatu daiteke goiburuko etiketaren gainean sakatuta, Logoa zutabean izan ezik. Etiketan sakatu behar da behin eta berriz ordena alderantzizatzeko.

✉ PV24,PV20(EUSKADI)

Emaizak Lerroak Barrak				
☒ B Kandidatura ☐ B% Kandidatura ☐ B% baliodunen ☐ Jarlekuak CSV XLS PDF				
Logoa	Siglak	PV20	PV24	Aldea
	EAJ-PNV	349.960	372.456	22.496
	EH BILDU	249.580	343.609	94.029
	PSE-EE/PSOE	122.248	150.752	28.504
	PP		98.144	
	SUMAR		35.402	
	PODEMOS-AHAL DUGU - ALIANZA VERDE		23.888	
	VOX	17.569	21.696	4.127
	PACMA		5.585	
	EB-AZ		3.112	
	PUM+J	1.103	1.683	580
	IZAN		1.419	
	PCTE / ELAK	549	666	117
	PH	279	475	196
	O.E.	64	187	123
	PODEMOS-AHAL DUGU/EZKER ANITZA-IU	72.113		
	PP+Cs	60.650		

3.4.1. Grafikoak eta esportazioak

Funtzionamendua *Konparazio-azterketan* azaldutakoaren antzekoa da.

3.4.2. Alderdien bateraketaren analisia

Funtzionamendua *Konparazio-azterketan* azaldutakoaren antzekoa da.

3.5. Alderdiak

Ahalbidetzen du hautesbarruti mailan edo hortik gorako eremu-geografiko mailan aurkeztu diren alderdiak zerrendatzea.

Hauteskundera hautatzean datza **prozedura**. *Xehetasun maila* atalean aplikazioak hautesbarrutia eta hortik gorako mailak aurkeztuko dizkigu bat hauta dezagun.

✉ UDAL HAUTESKUNDEAK 2019 (MU19) (ESKUALDEA)

BILBAO

📍 Emaizak

[CSV](#) [XLS](#) [PDF](#)

◀ <
BILBAO
> ▶

Logoa	Siglak	Alderdia
	ACPS	ACTUANDO CONTIGO PARTIDO PARA LA SOCIEDAD
	ATTKA/PACMA	ANIMALIEN TRATU TXARREN KONTRAKO ALDERDI ANIMALISTA / PARTIDO ANIMALISTA CONTRA EL MALTRATO ANIMAL
	B.I.B.	BILBAINOS, INICIATIVA POR BILBAO
	Cs	CIUDADANOS-PARTIDO DE LA CIUDADANIA
	EAJ-PNV	EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO
	EH BILDU	EUSKAL HERRIA BILDU
	FE-JONS	FALANGE ESPAÑOLA DE LAS JUNTAS DE OFENSIVA NACIONAL SINDICAL
	G.G.B.	GANEMOS GOAZEN
	GANEMOS	GANEMOS

Behin emaitzak lortuta, taula ordenatu daiteke datuen edozein zutaberen arabera (Logoaren arabera izan ezik). Horretarako etiketaren goiburuan sakatu. Etiketa behin eta berriz sakatu ordena alderantzizatzeko.

1. adibidea: Bidasoa-Oiartzun eskualdeko udalerrri bakoitzean 2023ko Udal Hauteskundeetan aurkeztu diren alderdi politikoak kontsultatu nahi ditut.

1. *Hauteskundera* eremuan, 2023ko Udal-hauteskundeak (MU23) hautatuko dugu.
2. *Xehetasun-maila* eremuan, *Udalerrria* aukera hartuko dugu.
3. *Geografia-eremua* fitxako eskualde aukeraketa-eremuan, *BIDASOA-OIARTZUN* aukeratuko dugu.

4. *Bilaketa egin* sakatuko dugu.
5.  Taularen goiko aldean udalerriak hautatzeko botoiak aurkituko ditugu. Horiek erabilita Bidasoa-Oiartzun eskualdeko edozein udalerri hauta dezakezu. Informazioa CSV, XLS eta PDF formatuetan esportatu dezakegu.

3.6. Alderdien partehartzea

Alderdi batek parte hartu duen hauteskundeak zerrendatzeko erabiltzen da.

Lehenik formazio politikoen zerrendatik bakar bat hautatuko dugu. Kontuan izan formazio politikoak alfabetikoki ordenatuta agertzen direla. Nahi duguna aukeratu ondoren *Bilaketa egin* sakatuko dugu.

Datuen taula edozein datu-zutaberen arabera ordenatu daiteke goiburuko etiketaren gainean sakatuta. Ordena aldatzeko, etiketan sakatu behar da behin eta berriz.

Bilaketa ^

ARALAR - ARALAR

Emaitzak

CSV XLS PDF

Kodea	Hauteskundera	Data
MU11	UDAL HAUTESKUNDEAK 2011	2011/05/22
JG11	BILTZAR NAGUSIAK 2011	2011/05/22
PV09	EUSKO LEGEBILTZARRA 2009	2009/03/01
GC08	HAUTESKUNDE NAGUSIAK 2008	2008/03/09
MU07	UDAL HAUTESKUNDEAK 2007	2007/05/27
PV05	EUSKO LEGEBILTZARRA 2005	2005/04/17
EU04	EUROPEAR LEGEBILTZARRA 2004	2004/06/13
MU03	UDAL HAUTESKUNDEAK 2003	2003/05/25
JG03	BILTZAR NAGUSIAK 2003	2003/05/25

3.7. D'Hondt araua

Menu aukera horri esker jarlekuen banaketa simulatu dezakegu. Datuak eskuz kargatu daitezke edo hauteskunde batetik inportatu. Beste era batean hel gaitzke D'Hondt arauera, hain zuzen ere *Hauteskundeetako emaitzak* aukeratik [Simulazio egin](#) botoian sakatuta.

Simulazioa egiteko, beharrezkoa da datuak kargatzea. Datuak eskuz sartu ditzakegu edo hauteskunde batetik kargatu.

Eskuz kargatzeko prozedura jarraituz gero, *Datuak* fitxaren hurrengo eremuak bete beharra dago.

Goialdeko eremuak:

- Analisisirako izenburua.
- Hautagai-zerrenden aldeko botoak (hautagaitza guztiek lortutako botoen batura).

- Boto zuriak.
- Boto baliodunen eremua automatikoki beteko da hautagai-zerrendei emandako botoen eta boto zurien batuketa baita.
- Jarlekuen banaketan parte hartzeko alderdi politiko bakoitzak gainditu beharreko gutxieneko ehunekoa (boto baliodunena). Ehuneko hori baino gutxiago duten alderdiak ez dira jarlekuen banaketan sartuko.
- Banatu beharreko jarleku kopurua.

Behealdeko datuak (*Alderdiak* fitxa):

- Alderdi politiko bakoitzaren izena, siglak eta botoak. Aukera honetan *Berria*, *Editatu* eta *Ezabatu* botoiak ditugu erabilgarri.

Hauteskunde batetik datuak kargatzeko prozedura berriz, hurrengo adibidean azaltzen da.

1. adibidea: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, zein izango litzateke Arabako 25 jarlekuen banaketa, alderdiek 2019ko azaroko Kongresurako hauteskundeetan lortutako boto kopuru bera lortuko balituzte?

1. *Hauteskunde batetik datuak kargatu* botoia sakatuko dugu.
2. *DIPUTATUEN KONGRESUA 2019 10N* (GC19-2) hautatuko dugu.
3. Behealdean, *Xehetasun maila* eremuan, *Lurralde historikoa* aukeratuko dugu.
4. *Lurralde historikoa* eremuan, *ARABA/ÁLAVA* aukeratuko dugu.
5. *Hautatu* botoia sakatuko dugu. Horrek simulazio-formulariora eramango gaitu, eta bertan automatikoki kargatuko dira hautatu berri ditugun emaitzak.
6. *Jarlekuak* eremuan 25 jarriko ditugu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan 25 jarleku banatzen baitira Lurralde Historiko bakoitzean.
7. *Simulazioa egin* botoia sakatuko dugu.

Datuak

Hauteskunde batetik datuak kargatu

Izenburua: DIPUTATUEN KONGRESUA 2019 A10 (G)

Gainditu beharreko %: 3

Jarlekuak: 25

Boto baliodunak: 1184035

Zuriak: 6624

Hautagai-zerrenden aldeko botoak: 1177411

Simulazioa egin

Alderdiak

Siglak	Alderdia	Botoak Kandidatura
EAJ-PNV	EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO	379002
PSE-EE/PSOE	PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)	227396
EH BILDU	EUSKAL HERRIA BILDU	221073
PODEMOS-AHAL DUGU/EZKER ANITZA-IU	ELKARREKIN PODEMOS-IU	182674
PP	PARTIDO POPULAR	104746

2. adibidea: Eta nolakoa izango litzateke jarlekuen banaketa Euskadi hautesbarruti bakarra eta gaingitu beharreko portzentajea %10a balira?

Adibide honetan, datuen kargak erraztuko digun *Hauteskundeetako emaitzak* funtzioa hartuko dugu abiapuntu.

1.  Menutik *Hauteskundeetako emaitzak* funtzioa hautatuko dugu.
2. Hauteskunde eremuan *DIPUTATUEN KONGRESUA 2019 10N (GC19-2)* aukeratuko dugu.
3. *Bilaketa egin* sakatuko dugu.
4. Datuak simulazio funtziora pasatzeko, *Simulatu* sakatuko dugu.
5. Simulazio formularioan izenburua zehaztuko dugu.
6. *Gaingitu beharreko %* eremuan %10a jarriko dugu.
7. Eusko Legebiltzarra osatzen duten *Jarlekuak 75* direla zehaztuko dugu.
8. *Simulazioa egin* sakatuko dugu.


3. adibidea: aurreko adibidean, nola geratzen da banaketa %10 beharrean %5 zehazten bada?

1. *Datuak* fitxa sakatuko dugu (edo aurreko adibideko 1etik 5era bitarteko urratsak egingo ditzakegu).
2. *Gaingitu beharreko %* 5 jarriko dugu.
3. *Simulazioa egin* sakatuko dugu.

3.8. Bateraketak

Geografia eremuak edo eta formazio politikoak taldekatu daitezke emaitzen analisiak egiteko. Horretarako lehen pausua bateraketak egitea da.

Bateraketak



3.8.1. Alderdien bateraketak

Nahiko ohikoa da denboran zehar alderdi batek hauteskunde prozesu batetik bestera siglak aldatzea, koalizio bateko kide izatera pasatzea edo koaliziotik irtetzea, etab. AREk ez ditu berez aldaketa horiek jasotzeko erarik eta horregatik datuak banakatuta aurkezten ditu. Beraz, lerro bakoitzeko emaitza hautatu dugun hauteskundeetan aldarrikatutako alderdi politiko bati

dagokio. Hala ere, analisia egiten ari den pertsonari interesgarria gerta dakioke alderdi ezberdinen datuak lerro batean batuta agertzea, batez ere bilakaera-analisia grafikoki ikusi nahi badu. Kasu honetan, AREk alderdien bateraketak egiteko aukera ematen du, erabiltzaileak etiketa (izen) beraren azpian hainbat alderdi politikoen emaitzak bateratu ditzan.

Funtzionamendua *Konparazio-azterketa* atalean azaltzen da.

Bateraketak aukeraren *Alderdia* fitxan, bateraketak kudeatzeko botoiak daude (*Berria*, *Editatu* eta *Ezabatu*). Sortutako bateraketak gordeko ditugu eta ezabatzen ez ditugun bitartean AREn erabilgarri izango ditugu.

Alderdien bateraketa egiterako orduan, formularioak, besterik adierazi ezean, alderdi politikoen zerrenda aurkezten du alderdi independenteak (hautesle-taldeak) kenduta. Hala ere, erabiltzaileak aplikazioak aurkezten dion alderdi politikoen zerrenda murriztu dezake, *Hauteskundearen arabera iragazi* aukerari esker. Bestalde, zerrendan talde independenteak sar daitezke.

1. adibidea: nola egin dezakegu PP eta Cs alderdien datuak batera aurkeztea?

1.  Menutik *Bateraketak* funtzioa hautatuko dugu.
2. *Alderdia* fitxan sakatuko dugu.
3. *Berria* botoia sakatuko dugu bateraketa sortzeko.
4. Formularioan izenburua jarriko dugu (adibidez, PP-Cs).
5. *Erabilgarri* etiketaren azpian agertzen diren alderdietatik PPri eta Csi dagozkien sigla guztiak hautatuko ditugu eta eskuinera pasatuko ditugu  tekla erabilita.
6. *Gorde* botoia sakatuko dugu.

Alderdien bateraketa

Izenburua:

PP - Cs bateraketa

Alderdien zerrenda: ☒ Guztiak ☐ Hauteskundearen arabera iragazi

Hautagai-zerrenda ☐ Bai ☒ Ez
independenteak ikusi:

Erabilgarri:

- CTC - COMIUNION TRADICIONALISTA CARLISTA
- CUC - CANDIDATURA DE UNIDAD COMUNISTA
- CUP - CANDIDATURA D'UNITAT POPULAR (CUP)
- CV-EC - COALICIÓN VERDE-EUROPA CIUDADANA
- CXE - CENTRISTAS POR EUROPA
- D.E.R. - AGRUPACIÓN DE ELECTORES D.E.R. (DISC.)
- D.I.V. - DEMOCRATAS INDEPENDIENTES VASCOS-UN

Hautatutakoak:

- PP - PARTIDO POPULAR
- Cs - CIUDADANOS-PARTIDO DE LA CIUDADANIA

Itxi **Gorde**

3.8.2. Bateraketa geografikoak

Bateraketa geografikoak baliagarriak dira botoek izandako bilakaera aztertzeko, hala nola, erabiltzaileak definitutako eremu batean (adibidez, Bilboko itsasadarren ezkerrean) edo

udalerrri baten parte ziren eremuetan (adibidez, Zierbena, Abanto-Zierbena udalerrriaren parte zena).

Bateraketak aukera sartzean, besterik adierazi ezean, *Geografia-eremua* fitxa irekitzen zaigu eta lau fitxa eskaintzen digu (*Lurralde Historikoa*, *Eskualdea*, *Udalerria* eta *Mahaia*). Fitxa horiei esker, sei mailatako bateraketak egin ditzakegu:

- Lurralde historikoa
- Eskualdea
- Udalerria
- Barrutia
- Atala
- Mahaiak

Azken hirurak *Mahaia* fitxatik kudeatzen dira.

Bateraketak gordeko ditugu eta ezabatzen ez ditugun bitartean, AREa sartzen garen bakoitzean erabilgarri izango ditugu.

Bateraketak kudeatzen dira *Berria*, *Editatu* eta *Ezabatu* botoien bidez.

Eskualdeen bateraketan beste hautaketa-eremu bat agertzen da *guztiak* edo *aktiboak* balioekin. Izan ere, 1983. urtera arte, hauteskunde-eskualdeak beste era batera mugatuta zeuden. Indarrean dauden eskualdeak *aktiboak* taldea osatzen dute. 1983ra arteko eskualdeak gure analisisian sartu nahi baditugu, *guztiak* aukeratu beharko dugu.

Mahai-bateraketak egiten ditugunean, bateraketa zein udalerritan egin nahi dugun definitu behar dugu. Gainera, mota ezberdinetako bateraketak egin daitezke (errola-barrutien, atalen edo mahaien arabera) *Xehetasun maila* eremuan aukeratutakoaren arabera.


1. adibidea: Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan atzerrian iraunkorki bizi direnen botoak izan duten bilakaerari buruzko azterketa egin nahi dugu. Zer egin behar dugu?

Prozedura bi zatitan banatzen da. Lehenengoan, atzerrian iraunkorki bizi diren egoiliarren (CERA) eskualdeen bateraketa egingo dugu. Bigarren fasean, konparazio-azterketa egingo dugu. Horretarako, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde *guztiak* eta aipatutako bateraketa erabiliko ditugu.

A. Atzerrian iraunkorki bizi diren egoiliarren (CERA) **eskualdeetako bateraketa prestatzea.**

1.  Menutik *Bateraketak* funtzioa hautatuko dugu.
2. *Geografia-eremua* fitxa sakatuko dugu.
3. *Berria* botoia sakatuko dugu bateraketa sortzeko.
4. *Izenburuan* bateraketaren izena idatziko dugu.
5. *Eskualdea* fitxa sakatuko dugu.

6. *Erabilgarri*: etiketaren azpian, CERA eskualde guztiak hautatu (Arabako CERA Eskualdea, Gipuzkoako CERA Eskualdea eta Bizkaiko CERA Eskualdea) eta eskuinera pasatuko ditugu  tekla sakatuta.
7. *Gorde* botoia sakatuko dugu.



Geografia-eremua Alderdia

Lurralde Historikoa Eskualdea Udalerrria Mahaia

Eskuragarri dauden bateraketak:

CERA ESKUALDEA

Osaera:

ARABAKO CERA ESKUALDEA
GIPUZKOAKO CERA ESKUALDEA
BIZKAIKO CERA ESKUALDEA

Berria Editatu Ezabatu

Izenburua:

Eskualdea

☐ Guztiak ☒ Indarrean

Erabilgarri:

DURANGO - ARRATIA
ENKARTERRIAK
GIPUZKOAKO CERA ESKUALDEA
KUADRILLAK: GORBEIALDEA, ARABAKO LAUTADA, AÑORIA
VITORIA-GASTEIZKO KUADRILLA
BIDASOA - OIARTZUN

Hautatutakoak:

Itxi Gorde

B. Egindako bateraketa erabilita **konparazio-azterketa** egin.

1.  Menutik *Konparazio-azterketa* funtzioa hautatuko dugu.
2. *Sakatu Hauteskundeak hautatzeko* botoia sakatuko dugu, eta orain arte Eusko Legebiltzarrerako egindako hauteskunde guztiak hautatuko ditugu.
3. *Xehetasun maila* atalean, *Eskualdea* aukeratuko dugu.
4. *Geografia-eremua* fitxaren gainean sakatuko dugu, eta eskualdeen bateraketak hautatzeko eremuan, aurreko fasean sortutako bateraketa aukeratuko dugu.
5. *Bilaketa egin* botoia sakatuko dugu.

Konparazio-azterketa

Bilaketa

Sakatu hauteskundeak hautatzeko PV24, PV20, PV16, PV12, PV09, PV05, PV01, PV98, PV94, PV90, PV86, PV84, PV80

Xehetasun maila:

Bilaketa egin

Geografia-eremua **Alderdiak**

LH: Eskualdea:

Udalerria: Errolda-Barrutia:

Atala: Mahaia:

LH bateraketa: Eskualdeen bateraketa:

Udalen bateraketa: Mahaien bateraketa:

3.9. Egindako hauteskundeak

Aukera honi esker datu-basean erregistratutako hauteskunde guztien zerrenda lortzen dugu eta baita horien data garrantzitsuenak ere.

3.10. Mapak

Mapen aukera erabiltzen da informazioa mapetan aurkezteko. Honako hauek dira AREk dituen mapa-motak:

...

...

Errolda

Abstentzioa

Boto/jarleku gehien dituzten alderdiak

Alderdi baten botoen/jarlekuen araberrako sailkapena

Alderdi baten botoen ehunekoa

Bi alderdiren arteko botoen/jarlekuen aldea

Zein eremutan aurkeztu den alderdi bat

Alderdi baten botoen/jarlekuen gehikuntza (edo jaitsiera) bi hauteskudeen artean

- **Errolda:** Errolda-tarte bakoitzari kolore bat dagokio. Beraz, *Xehetasun-mailan* eremu-geografikoa aukeratzean, eremu bakoitza bere erroldaren araberrako kolorean agertuko da. Legendak adieraziko digu kolore bakoitzaren esanahia.
- **Abstentzioa:** Abstentzio-tarte bakoitzari kolore bat dagokio. Beraz, *Xehetasun-mailan* eremu-geografikoa aukeratzean, eremu bakoitza bere abstentzioaren ehunekoi dagokion kolorean agertuko da. Legendak adieraziko digu kolore bakoitzaren esanahia.

- **Boto/jarleku gehien dituzten alderdiak:** *Xehetasun-mailan* hautatutako eremu-geografiko bakoitzaren kolorea unitate horretan botoetan edo jarlekuetan irabazle agertu den alderdiaren arabera izango da.
- **Alderdi baten botoen/jarlekuen arabera sailkapena:** Eremu-geografikoak kolore-gamatan adierazten dira hautatutako alderdi politikoa lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren edo hurrengo postuetan gelditu den arabera. Sailkapena hurrengo datuen arabera egin daiteke; botoak, botoen ehunekoa edo jarlekuak (xehetasun maila hauteskundearen hautesbarrutiei badagokie).
- **Alderdi baten botoen ehunekoa:** *Xehetasun-mailan* hautatutako eremu-geografikoen kolorea alderdi politiko batek bertan lortutako botoen ehunekoaren arabera da.
- **Bi alderdiren arteko botoen/jarlekuen aldea:** *Xehetasun-mailan* zehaztutako eremu-geografiko bakoitzak adierazitako alderdien artean irabazlea denaren kolorea hartuko du. Kontuan izan konparaketa hautatutako bi alderdien artean besterik ez dela. Konparaketa hurrengoetan oinarrituko da; botoak, botoen ehunekoa edo jarlekuak (xehetasun maila hauteskundearen hautesbarrutiei badagokie).
- **Zein eremutan aurkezten den alderdi bat:** Hauteskundera, alderdia eta xehetasun maila zehaztu beharko ditugu. Mapan eremu-geografikoa (xehetasun-maila) alderdiaren kolorean adieraziko da baldin eta hauteskunde horretan eta eremu horretarako aldarrikatu bada.
- **Alderdi baten botoen/jarlekuen gehikuntza (edo jaitsiera) bi hauteskundearen artean:** Eremu-geografiko bakoitza (xehetasun-mailan adierazitakoa) kolore batean irudikatzen da baldin eta hautatutako alderdi politikoa emaitzak handitu baditu; beste kolore batean emaitzetan jaitsiera izan badu, eta hirugarren kolore batean emaitza bera lortu badu.

Oro har, mapak udalerri xehetasun-mailaraino hel daitezke. Hala ere, lehenengo lau mapak atala mailaraino hel daitezke, baina, soilik lurralde historikoetako hiriburuen kasuan.

Informazioa mapetan irudikatzeko lehenik *Mapa mota* aukeratu behar da. Ondoren, *Hauteskundera* (mapa mota batzuk hauteskunde bat baino gehiago hautatzea ahalbideratzen dute) eta, maparen arabera, baita *Alderdiak* ere.


Bilaketa

Mapa mota: Alderdi baten botoen ehunekoa

☐ Hauteskundeak

- ☐ EUROPAKO PARLAMENTUA 2019 (EP10)
- ☐ DIPUTATUEN KONGRESUA 2019 A10 (GC19-2)
- ☐ EUSKO LEGEBILTZARRA 2020 UZT 12 (PV20)
- ☐ UDAL HAUTESKUNDEAK 2023 (MU23)
- ☐ BATZAR NAGUSIAK 2023 (JG23)
- ☐ ALDERDI BATEN BOTOEN/JARLEKUEN GEHIKUNTZA (edo jaitsiera) bi hauteskundeen artean
- ☐ ZEIN EREMUTAN AURKEZTEN DEN ALDERDI BAT
- ☐ BI ALDERDIEN ARTEKO BOTOEN/JARLEKUEN ALDEA
- ☐ ALDERDI BATEN BOTOEN/JARLEKUEN ARABERAKO SAILKAPENA
- ☐ BOTO/JARLEKU GEHIEN DITUZTEN ALDERDIAK
- ☐ ABSTENTZIOA
- ☐ ERROLDA


Pantailan behe-rago *Xehetasun maila* zehazteko aukera daukagu. Aurrekoaz gain, hainbat mapetan irudikapena zein datutan oinarrituko den zehaztu dezakegu (boto-kopurua, botoen ehunekoa edo jarleku kopurua).



Maparen gainean eta goi-ekerraldean zooma erabiltzeko botoiak daude. Behe-eskuinaldean, berriz, legendaren datuak zabaltzeko botoia.

 Boto/jarleku gehien dituzten alderdiak

 MU23




Saguaren erakuslea eremu-geografiko baten gainetik pasatzen badugu, bere izena erakutsiko digu. Eremu-geografiko batean klik eginez, eremu horri dagozkion zenbakizko datu zehatzak ikus ditzakegu leiho batean.

Bilaketa 

 Boto/jarleku gehien dituzten alderdiak

 MU23



Hauteskunde mota jakin batzuetan atzerrian iraunkorki bizi diren egoiliarrek (CERA) bozka dezakete. Kasu horietan xehetasun mailan *Eskualdea* aukeratuz gero, mapan gutun-azal baten irudia  ikus daiteke. Gainean sakatuta CERAr dagokion zenbakizko datuak agertuko dira.

1. adibidea: 2019ko Udal Hauteskundeetan PP aurkeztu den udalerrri guztien mapa irudikatu nahi dut.

1. Bilaketa eremuan, *Zein eremutan aurkezten den alderdi bat* hautatuko dugu Mapa mota atalean.
2. *Hauteskundeak* fitxan UDAL HAUTESKUNDEAK 2019 (MU19) aukeratuko dugu.
3. *Alderdiak* fitxan PP hautatuko dugu.
4. *Bilaketa* egin sakatuko dugu.
5. Behin Mapa agertzen denean, *Xehetasun mailan, Udalerria* aukeratuko dugu.